OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDAL HILERRIKO EHORZKETA, EXHUMAZIO ETA MANTENU ZERBITZUAREN KONTRATUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2024KO170003

1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA KOKAPENA

Kontratuaren xedea da Oiartzungo udal hilerrian ehorzketa, exhumazio eta mantenu zerbitzua ematea, Oiartzungo udal hilerriaren eta beilatoki-zerbitzuaren funtzionamendua arautzeko Erregelamenduarekin bat etorriz (2021eko uztailaren 5eko 125 zbk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Oiartzungo hilerria Sibeluts kalea 4 zenbakian dago. Hura eraikitzeko onartu zen planoan ezarritako moduan dago banatua, eta honako instalazio hauek ditu:

- Gorpu bakar baterako nitxoak
- Panteoiak
- Hezurtegi orokorra
- Kolunbarioa
- Gerra Zibilean hildako eta fusilatuentzako guneak
- Udal instalazioak.

Udalak hilerrian obrak eta hobekuntzak egiteko aukera izango du, eta instalazioak handitu, txikitu, aldatu eta eraiki ahal izango ditu zerbitzua behar berrietara egokitzeko. Kontratistak, ordea, ezingo du obrarik edo hobekuntzarik egin Udalaren aldez aurretiko berariazko baimenik gabe.

Obra, hobekuntza eta aldaketa horiek direla eta Oiartzungo hilerriaren instalazioak edo eremuak handitzen direnean, kontratistak zerbitzua eremu horretara zabalduko du, baldintza berdinetan, beti ere Udalak hala erabakitzen baldin badu.

Baldintza agiri honen **I. Eranskinean** jasotzen da Oiartzungo udal hilerriaren eta beilatoki-zerbitzuaren funtzionamendua arautzeko Erregelamendua (2021eko uztailaren 5eko 125 zbk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua), eta **II. Eranskinean** hilerria eraikitzeko onartu zen planoa, ondorengo aldaketak eta guzti.

2.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Urteko 35.000 eurokoa, gehi % 21eko BEZari dagozkion 7.350 euro, guztira urteko 42.350 eurokoa (BEZa barne).

Egin beharreko lan bakoitzari dagokion banakako prezioa honakoa da:

Zerbitzua	**Prezioa (BEZik gabe)**	**Prezioa (BEZa barne)**
Ehorzketak lan egunetan	351,27 €	425,04 €

ESKU629c5029-7ebd-40d7-a9ac-2ec5ded5ddeb

Ehorzketak jai egunetan	439,14 €	531,36 €
Exhumazioak lan egunetan	351,27 €	425,04 €
Exhumazioak jai egunetan	439,14 €	531,36 €
Errautsen ehorzketa kolunbarioan lan egunetan, kolunbarioa ixteko behar den tapa eta seilatzeko materiala barne	169,79 €	205,44 €
Errautsen ehorzketa kolunbarioan jai egunetan, kolunbarioa ixteko behar den tapa eta seilatzeko materiala barne	230,43 €	278,83 €
Panteoiko balda bakoitzeko garbiketa (gorpuzkiak murriztea)	310,20 €	375,34 €
Panteoiko hondakinen kudeaketa; kontainerra jarri eta kendu	148,88 €	180,14 €
Panteoiko hondakinen kudeaketa; hondakinak botatzea balda bakoitzeko	62,02 €	75,05 €
Administrazio gastuak eta 24 orduko telefono atentzio eta kontsultak (urteko ordainketa)	1097,84 €	1328,39 €

Unitateko prezio horiek kalkulatzeko kontuan hartu da 2024. urtetik 2028. urtera egon daitekeen KPIren igoera, eta igoera hori barne biltzen duten kopuruak ezarri dira.

Unitateko prezio horiez gain, goiko taulan aurreikusten ez diren gainerako eginbehar eta betebeharretarako urteko 5.000 euro (BEZik gabe) aurreikusten dira.

3.- EGIN BEHARREKO LANAK

Zerbitzua ematean, kontratistak honako lan nagusiak egingo ditu, ideologia eta erlijio askatasunarekiko errespetuz:

- Ehorzketak edo hilobiratzeak
- Exhumazioak edo hilobitik ateratzeak, lekuz aldatzeak eta gorpuzkien murrizketak
- Balden garbiketa eta hondakinen kudeaketa
- Administrazio lanak eta telefono bidezko arreta eta kontsultak

Lan horiek gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatuko ditu, eta beharrezkoak diren baliabide teknikoak, materialak eta giza baliabideak jarriko ditu, zeinak zerbitzu egokia emateko beharrezko eskarmentua eta formakuntza izango duten.

3.1. Ehorzketak edo hilobiratzeak

Ehorzketak edo hilobiratzeak gorpu bat, gorpuzkiak edo errautsak dagokion hilobian edo hobian, nitxoan, panteoian, hezurtegi orokorrean edo kolunbarioan sartzean datza, izapide legalak beteta, aurrez dagozkion baimenak eta dokumentazioa eskuratuta eta unean-unean indarrean dagoen araudi tekniko sanitarioa betez. Gero hormatu edo itxi egingo da, kasu bakoitzean dagozkion eragiketak eginez.

3.2. Exhumazioak edo hilobitik ateratzeak, lekuz aldatzeak eta gorpuzkien murrizketak

Exhumazioak edo hilobitik ateratzeak hilotz bat, hilotz-hondarrak edo gorpuzkiak lurperatua izan zen lekutik ateratzean eta ondoren dagokion lekura eramateko prestatzean datza, hildakoen oinordekoek edo hurkoek eskatuta edota ehorzketa eskubidearen edozein titularren eskariz, haiek falta badira. Izan daiteke lekuz aldatu eta hilerrian bertan berriz hilobiratzeko, nahiz beste leku batera eramateko. Edozein kasutan, aurrez beharrezko baimenak eta adostasunak eskuratu

ESKU629c5029-7ebd-40d7-a9ac-2ec5ded5ddeb

eta dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira, eta unean-unean indarrean dauden eta kasu bakoitzari dagozkion higiene eta osasun arauak errespetatu eta bete.

Leku aldaketak egiteko, gorpuzkiak hilerri barruko beste leku batera eraman behar badira, poltsa edo kaxa batean sartuko dira, eta hilerritik kanpo eraman behar badira, gorpuzkien kutxa batean.

Gorpuzkiak murrizteak, berriz, gorpuzkiak errauts-kutxa edo poltsa txikietan bildu eta lurperatze-unitate beraren barruan nahiz espresuki horretarako den unitate batean uztean datza, edo gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramatean, lurperatze-unitatearen titularraren ordezkariak eskatuta edo Udalak bere kabuz erabakita, emakida epea amaitutakoan, salbuespeneko egoeraren bat gertatzen denean edo instalazioen okupazio-maila handia denean.

Hilotzak, hilotz-hondarrak eta gorpuzkiak hilobitik ateratzeko ardura duten langileek eskularru sendoak, maskarak, botak eta babes-arropa berezia erabiliko dituzte, eta lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren araudiak eta kasu bakoitzari dagozkion higiene eta osasun arauak betez.

Halaber, hilobitik ateratzeak, lekuz aldatzeak eta murrizketak zerbitzua ematen duten langileen lan ordutegiaren barruan egingo dira, zeina bat etorriko den, ahal izanez gero, bisitari gutxien dagoen orduekin. Edonola ere, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean hilobitik ateratzeko lanak aldi batez bertan behera utziko dira, agintari judizialek agindutakoak izan ezik.

3.3. Balden garbiketa eta hondakinen kudeaketa

Kontratistak hilobitik ateratzeak edota gorpuzkien murrizketak egiterakoan baldak garbituko ditu, eta bertan biltzen diren hondakinak eta zaborra kudeatzeaz arduratuko da. Kontratista arduratuko da horretarako edukiontzia jartzeaz eta kentzeaz, eta bildutako hondakinak eta zaborra bertara botatzeaz.

3.4. Administrazio lanak eta telefono bidezko arreta eta kontsultak

Zerbitzua emateak eskatzen dituen administrazio lanak behar bezala egin beharko dira. Hala nola, beharrezkoak diren baimenak eskatzea eta eskuratzea, erregistroari dagokion dokumentazioa igortzea ezarritako xehetasun eta aldizkakotasunarekin, etab.

Horrez gain, 24 orduz telefono bidez arreta eman behar da.

4.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Aurretik xedatutakoaren kalterik gabe, kontratistak ondorengo zereginak izango ditu, Oiartzungo udal hilerriaren eta beilatoki-zerbitzuaren funtzionamendua arautzeko Erregelamenduarekin bat etorriz (2021eko uztailaren 5eko 125 zbk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua):

- Hilobiratzeko edo hilobitik ateratzeko, eta hilobiak itxi edo estaltzeko beharrezkoak diren lanak egingo ditu, baldintza agiri honen 3. klausulan jasotakoaren baitan.
- Kasu bakoitzean beharrezkoak diren baimenak, agiriak eta dokumentuak eskatzea.

ESKU629c5029-7ebd-40d7-a9ac-2ec5ded5ddeb

- Hilerria, hilobi-eraikinak eta hilerrian dauden elementuak zaintzea eta mantentzea, baita zerbitzua emateko beharrezkoak diren osagaiak, lanabesak edo erremintak ere.
- Hilobiak hustu eta garbitzetik jasotako arropa, hileta-tresna eta bestelako gauzak suntsitzea.
- Zerbitzuarekin lotuta dauden eta indarrean dauden arauak eta legeak, osasun eta higiene neurriak betetzea.
- Hilerriko ordena egokia mantentzea eta bermatzea, eta lekuari zor zaion begirunea bermatzea eta hori asaldatzen duten pertsonak eta jarduerak saihestea.
- Oiartzungo Udalari hilerrian gertatzen diren anomaliak jakinaraztea, baita lurperatze-eskubideen titularrek beren betebeharretan egiten dituzten ez-betetzeak eta arau hausteak ere.
- Oiartzungo Udalaren aginduak betetzea eta betearaztea.
- Hilerriko barne-araudiari lotuta dagoen edo zerbitzuarekin zerikusia duen eta eskatzen zaion beste edozein eginkizun burutzea.

5.- GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzua emango duten langileek, gorago aipatu moduan, zerbitzu egokia emateko beharrezko eskarmentua eta formakuntza izango dute, eta Oiartzungo udal hilerriaren eta beilatoki-zerbitzuaren funtzionamendua arautzeko Erregelamenduan (2021eko uztailaren 5eko 125 zbk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua) jasotako artikulu eta xedapen guztiak ezagutu eta bete beharko dituzte.

Besteak beste, laneko segurtasunaren, osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia beteko dute, eta lan bakoitzerako beharrezkoa den ekipamendu berezia erabili beharko dute.

Halaber, uneoro saiatuko dira hilerria bisitatzen dutenei alferrikako eragozpenik ez sortzen, eta gorpuak ahalik eta begirune handienarekin hilobiratu, hilobitik atera eta lekuz aldatuko dituzte. Gainera, aurkezten dizkieten kexak eta erreklamazioak entzun, jakinarazi eta, ahal den neurrian, konponduko dituzte, beti ere begirunez.

Ezingo dute zerbitzu edo enpresa jakin batzuen aldeko propaganda egin, ezta dirua jaso ere beren lanpostuari atxikitako zerbitzuak egiteagatik.

6.- KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK

Kontratistak kontratua gauzatzeko beharrezko gastu guztiak hartu beharko ditu bere gain. Prezioaren barne daude gastu horiek guztiak, baita zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketa, eta garraioaren gastuak ere.

7.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa da, eta urtebeteko bi luzapen aurreikusten dira.

8.- BERME EPEA

ESKU629c5029-7ebd-40d7-a9ac-2ec5ded5ddeb

URTEBETEKO berme epea egongo da, onarpen egintza formala eta positiboaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLn eta HAKLEOean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena.

Prestazioen onarpena egiterakoan antzematen bada prestazio horiek ez direla ezarritako baldintzetan gauzatu eta bete, edo akatsak daudela, kontratatutako prestazioak egiteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko zaio kontratistari. Lanak ez baldin badatoz bat kontratatutako prestazioarekin kontratistari egotz dakizkiokeen hutsegite eta akatsengatik, Udalak uko egin ahal izango dio prestazioari, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuta, edo eskubidea edukiko du, bere kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Berme epean egiaztatzen bada egindako lanetan hutsegiteak edo akatsak daudela, kontratazio organoak kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

Berme epea amaitzen bada Udalak adierazitako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratista aske geratuko da egindako prestazioak direla-eta izan zezakeen erantzukizunetik eta behin betiko bermea itzuliko zaio.

9.- EXEKUZIOAREN KONTROLA

Hilabete bakoitzaren hasieran, kontratistak aurreko hilabetean egindako lanen edo emandako zerbitzuen inguruko memoria aurkeztuko du.

Bertan zehaztu beharko dira egindako ehorzketak edo hilobiratzeak, exhumazioak edo hilobitik ateratzeak eta lekuz aldatzeak, adieraziz hileta tokia eta data, gorpua edo gorpuzkia norenak ziren (izen-abizenak, adina eta sexua), ekintzok noiz gauzatu ziren (data eta ordua), hilobiratzearen lekua (hilobi mota, kalea eta zenbakia) edo hilobitik ateratako gorpuzkien norakoa, gorpuzkiak hilobitik ateratzearen arrazoia, eskatzailearen datuak (izen-abizenak eta NAN), hilobiaren titularraren datuak eta kontaktua, baita beharrezkotzat jotzen den edo zerbitzuarekin lotura duen beste edozein datu edo jakinarazpen ere.

Horrekin batera aurkeztu beharko dira hilobiak irekitzeko eskaerak eta ehorzketak edo exhumazioak egiteko ardurapeko baimenak, behar bezala beteta eta beharrezkoak diren datu guztiekin, lur emateko baimenak, errausketa egin izanaren ziurtagiriak, bere kasuan, edota kasuan kasu beharrezkoa den beste edozein dokumentu.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Elektronikoki sinatua

Nork Sinatua / Firmado por: AROIA ALTUNA IBARGUREN - 44572433C
2024/12/12 12:22:56

EKS | CSV: **ESKU629c5029-7ebd-40d7-a9ac-2ec5ded5ddeb**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310